


# APAIZAK ERE TORTURATUAK



Juan Mari Zulaika, Felipe Izagirre, Jon Etxabe, Mikel Zuazabeitia  
Martin Orbe, Kepa Arrate, Tasio Erkizia, Jose A. Kalzada  
Angel Fernandez, Luis Amiano, Txomin Artetxe, Fco. Jabier Olabe  
Andoni Armentia, Pedro J. Larrea, Juan J. Camarero-Nuñez  
Luis Arsuaga, Jose M<sup>a</sup> Aleman, Iñaki Urtaran, Jose R. Trebiño  
Txema Auzmendi

*Izenburua*  
Apaizak ere torturatuak

*Egileak*  
Juan Mari Zulaika, Felipe Izagirre, Jon Etxabe, Mikel Zuazabeitia, Martin Orbe, Kepa Arrate, Tasio Erkizia, Jose A. Kalzada, Angel Fernandez, Luis Amiano, Txomin Artetxe, Fco. Jabier Olabe, Andoni Armentia, Pedro J. Larrea, Juan J. Camarero-Nuñez, Luis Arsuaga, J. M<sup>a</sup> Aleman, Iñaki Urtaran, Jose R. Trebiño, Txema Auzmendi.

*Koordinazioa*  
Martin Orbe eta Sebastian Gartzia  
Juan Ramon Garai eta Julia Monge

*Testu orrazketa*  
Karmel Uribarren

*Azalaren diseinua*  
Xabier Egaña  
Alberto Encinas

*Argitaletxea*  
Intxorta 1937 kultur elkarte  
[www.intxorta.org](http://www.intxorta.org)

*Lehenengo edizioa*  
Oñatin, 2017ko irailean

*Maketazioa eta inprimaketa*  
Gertu, Oñati

*I.S.B.N.: 978-84-943095-5-7*  
*Depósito Legal: SS-730-2017*

*Laguntzailea*  
Gipuzkoako Foru Aldundia



# HITZAURREA

## Jon-M. Landa

Zuzenbide Penaleko katedradun –akred.-  
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Irakurle estimatua, eskuartean duzun liburu hau ezohikoa da. Ezohikoa zuzen-zuzeneko lekukotza batzuk –gogorak, hunkigarriak, eskandalagarriak- dakartzalako. Ezohikoa torturatuen lekukotzak apaiz (badiren edota izandakoen) batzuenak direlako. Ezohikoa gai honetan argia egitea maiz gertatzen ez delako. Baina liburuak argia –ilunpeko kru-delkeria eta bihotzgabekeriaren gainetik- ematen du, mila bider mila diskurtso ideologiko baino ozenago tortura gordinak hitz egiten duelako. Tortura egon dela sinistu ala ez, irakurle estimatua, irakur ezazu hau eta hitza ematen dizut ez zarela irakurri aurretiko egoera bereberean mantenduko: liburu hau irakurtzeak ukituko zaitu, aldatuko zaitu.

Liburu honen sarrera, ordea, testuinguruan kokatzekotan, hiru zatitan eta azkeneko hausnarketa batean banatuko dut: lehenik tortura eta tratu txarrak ez jasotzeko giza eskubidea aurkeztuko dugu nazioartean duen esanahiaren ikuspegitik. Bigarrenik, torturaren egungo egoera judicialaren irudia emango dugu, izan ere gaur egun daukaguna iraganetik datorkigu-eta eta komeni da ikusaraztea, hasiera-hasieratik, diktadura eta trantsizioaren tortura-praktikak ezkutatzegatik, estaltzegatik, egoerak konpondu gabe dirauela. Hirugarrenik, egungo egoeraren aurrekariak diren liburuaren lekukotzen gainean bi hitz esango ditugu, liburuaren mamiari tamaina hartzeko. Bukatzeko, azkeneko hausnarketa bati ekingo diogu, etorkizunari begira.

1. TORTURA NAZIOARTE MAILAN. Abenduak 10, Giza Eskubideen nazioarteko eguna ospatzen da mundu osoan. 1948ko Aldarrikapen Unibertsalaz geroztik, lehenengo aldiz gizateriaren historian, aldarrikatu ziren



denon eskubideak, gizakiak izateagatik ditugunak. Aldarrikatu bai, gu-txi ez dena, baina, aldi berean, esan genezake aldarrikatu direla besterik gabe: alegia, ez daudela bermaturik, hainbat urraketak jarraitzen due-la. Izan ere, eskubide horien aldeko borrokak, zuzenbidearen borrokak Rudolf von Ihering legegizon eta filosofo germaniar handiaren esane-tan (*Der Kampf ums Recht* 1872), jarraitzen baitu, injustiziaren aurrean Justizia, Zuzenbidea hitz larritan, zimendatu nahian. Beste hitz batzue-tan adierazteko: komeni da jakitea norberak dituen eskubideak zein diren, hain zuzen horiek urratu baino lehen prebentzio-lana egiteko; horiek urra-tzen direnean justizia eskatzeko, justizia behartzeko, erantzuleak zigortzeko, egia ateratzeko, biktimen mina ahal den neurrian konpon-tzeko eta berriro ere urraketarik gerta ez dadin ahalegintzeko.

Nazioartean aldarrikatutako eskubideen artean, bada eskubide bat, tortura eta tratu txarrak ez jasotzekoa, era absolutuan laster aldarrikatu zena: hau da, inor inoiz inolaz ere ezin da torturatua izan edo tratu txa-rrak jasotzearena, debeku absolutua dugu. Hori, esaterako, ezin da ezta bitziza-eskubidez ere aldarrikatu: bestea hiltzea, gure gizarteetan, nos-ki, guztiz debekatuta egon arren, batzuetan, ordea, legebidezko defentsan kasu, hiltzea baimenduta egon daitekeelako. Tortura, ordea, inoiz ezin da justifikatu, ezta salbuespenezko kasuetan edota guda egoeratan ere, 1984ko Nazio Batuen Hitzarmenaren eta 1987ko Europako Hitzarme-naren bitartez torturaren debekua argi eta garbi ezarri zelarik.

2. TORTURA EUSKAL HERRIAN ESPAINIAKO KONSTITUZIOA (1978) ONARTU ONDOREN. Eta nola dabil torturaren gaia gure Hego Euskal Herrian? Eta zehatz-mehatz tortura terrorismoaren aurkako borrokaren testuinguruan? "Portu eta Sarasola" izeneko kasuan Gipuzkoako Entzu-tegiak fundamentuzko epaia (2010eko abenduaren 30ekoa) eman zuen<sup>1</sup>, lehenengo aldiz Zigor Kode (ZK) berriaren ikuspegitik, tortura de-litua (art. 174 ZK) aplikatzen zuena, Guardia Zibilak egindako torturak zirela-eta, hain justu ere. Epaia oso landuta eta lotuta utzi zituen fro-gatutzat jotzen ziren egitateak, gorenako auzitegiak berrikusteko orduan hura izango baitzen, zalantza barik, gairik garrantzitsuenetakoa. Eta ha-la suertatu zen, Auzitegi Gorenak, 2011ko azaroaren 2ko epai baten

<sup>1</sup> Ikusi LANDA GOROSTIZA, JON MIRENA, "La tortura en relación con la banda terro-rista ETA: estado de la jurisprudencia penal. A la vez un comentario a la STS 2 noviem-bre 2011 (caso Portu y Sarasola)", JUCES PARA LA DEMOCRACIA 73 (2012),81-104.

---

bitartez, ETAk ematen omen dituen torturak salatzeko orientabideei helduta, froga nahikorik ez omen zegoela ebatzi zuen, erruztatuen guztien delituen kondenak ezereztuz.

Estatu espainiarrean 1978ko Konstituzioa onartu zenez geroztik, 14 kondena irmo (alegia, behin betikoa, berrikusi ezin dena) besterik ez da, ETAkide eta ustezko ETAkideen aurkako operazioetan izandako polizien torturak direla kausa. Hamalau soilik. Gainera, kondenak arinak izan ziren, lehengo (1973ko) kodearen zigorrak arinak zirelako eta, dena dela, indultu ugari izan dira kondena kasu horietan (12 indultu, behintzat, izandako kondenatuen kasuetan). Azken kondenak, 2003ko azaroaren 13koa, Auzitegi Gorenaren Epaiak, tortura kasu bat berresten du, Zornotzan 1980an! gertatu ziren egitate batzuen gainean. Hortaz, estatu espainiarrean inoiz ez da aplikatu, ETAREN borrokaren testuinguruan, 1995eko Kode penal berriaren tortura delitua, askoz zigor gogorragoak dakartzana (presoaldia eta erabateko desgaikuntza) 1973ko aurrekariak baino. Gainera, torturak onartu ziren hamalau kasuetan, kontuan hartuz gero zein egitate ari ziren epaitzen, gehienak 1979 eta 1984 bitartean gertatu ziren (14etatik, 13, alegia: denak Kepa Urraren kasua izan ezik). Epailiek gai honetan ezarri duten egia judiziala benetako egia izango balitz, horrek esan nahiko luke, Hego Euskal Herrian tortura bakarrik 14 aldiz-edo gertatu dela eta funtsean 1985etik aurrera ez omen dago torturarik ETAREN kontrako operazioetan edota atxiloketetan.

Demokraziarik garatuenetan ere tortura dago, baina tortura maila "arrunta" izendatzeko esamolde teknikoa zera izaten da: tortura-kasu "isolatuak" gertatzen direla. Ez dago, beraz, estatu bakar bat tortura kasurik gabe, zoritxarrez. Kasurik onenean tortura "isolatuak" topa ditzakegu. Estandar hori, ordea, ez da lortzen terrorismo fenomeno edo estatu interesak auzitan jartzen diren fenomeno bati aurre egiten zaion lekuetan, orduan tentsioa igo eta horren ondorioz estatuaren gehiegikeriak gora jotzen baitu. Beno, ba estatu espainiarrean 33 urteetako kontraterrorismoaren kronikan 14 kondena ditugu eta duela 25 urtetik edo ez dago batere kasu ofizialik. Hori sinistuko bagenu Espainia mundu osoan dagoen herrialderik onena izango litzateke torturarik gabeko estandarrei begira!

Torturaren egoera kontrolatzen duten erakunde ofizialak (Nazio Batuen Batzordeak, Europako Batzordeak) eta ez-ofizialak (Amnesty

International-ak, Human Rights Watch-ek), ukazinezko prestigiodunak, guztiak, urteetan behin eta berriro bat datoz: Espainian tortura dago eta 90 hamarkadaz geroztik sistematikoa izan ez bada ere, ez da isolatua: "era isolatuz baina ohikotasun gehiagoz" gertatzen da. Areago, azken urteotan Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak behin eta berriro kondenatu du Espainia tortura kasuak ez ikertzeagatik: Martinez Salas kasua 2004an, San Argimiro Isasa kasua 2010ean; Beristain kasua 2011n; Otamendi kasua 2012an; Ataun Rojo eta Etxeberria kasuak 2014; eta azkenik, momentuz, Arratibel Garciandia kasua 2015ean. Estrasburgoko epaitegiak ez ezik, Konstituzio Auzitegiak (Majarenas kasua 63/2010 Epaian esaterako), Auzitegi Gorenak (483/2011 Epaian) edo Entzutegi Nazionala berak ere (Egunkariaren kasuan) gauza bera berretsi dute: alegia, instrukzioan ez dela ikertu nahi izaten eta horrela ez dagoela modurik tortura frogatzeko.

Tortura, hortaz, ukazezina da, barne sail guztiek, aitzitik, Espainiakok zein Euskadikok, konstituzio ondorengoek eta aurrekoek, guztiek, beti ukatu badute ere. Denek ukatu baino gehiago da errealitatea, ofizialki aitortzen ez dena. Ataka horren aurrean, hortaz, estali nahi den errealitatea atera behar da argitara. Horra hor, liburu honen zentzua eta funtzioa: errealitatea atera dadila!

3. TORTURA ESPAINIAKO KONSTITUZIOA ONARTU AURRETIK, DIKTADURA BUKAERAKO GARAIAN. Liburu honek biltzen dituen lekukotzak Konstituzioa indarrean sartu aurretikoak dira, gordinak oso. Horietako askotan patroiz antzekoa errepikatzen da: jardun sistematikoa, zigorgabetasun osoko giroan, polizia erakundea modu estrukturalen harrapatzen zuena. Jarduna sistematikoa eta apaizon kasuan elizaren hierarkiak –oro har- beste aldera begira ez ezik, modu aktiboan tortura bera estaltzen zuena.

Hala nola, adibidez, Juan Mari Zulaika eta Felipe Izagirre frantziskotarren kasuan, 1968ko ekainean atxilotuak izan ondoren, ikaragarriko jipoia jaso zuten kasua. Hitzez hitz:

*Gertakizunaren ondoren, afaltzen geundela, Guardia Zibila azaldu zen eta mehatxuz, heldu eta koartelera eramanez gintuzten. Abegi basatia egin ziguten, jendartea asaldaturik baitzegoen haserre bizi, beren aurka herrian banaturiko horri iraingarri batengatik. Armen*

*gelan, gau osoan eduki gintuzten, kulatekin kolpeka, ostikoka, txandaka denak parte harturik, deskantsurik gabe jo eta jo. Gu biok beren kolpeetatik eskapa ezinik ibili ginen, mahai azpira edo mahi gaintetik saltoka. Gerritik bera, ipurdi, izter eta hankak, zeharo ubelduta laga zizkiguten.*

*Juan Mari Bandresek eta Migel Castellek argazkiak atera zizkiguten, non garbi ikusten zen hartutako egurra gorputzean genituen ubelduretan. Jacinto Argaya gotzainari pasatu zizkieten eta hark galdu egin zituela argudiatu zuen, bila joan zitzaizkionean. Probak galtzea izan zen abade kolpatuekiko bere laguntza bakarra. (Juan Mari Zulaika)*

Ilido beretik, beste honelako lekukotza zatia, Mikel Zuazaberiak utzitakoa:

*Hala ere, egunik gogorrena 1969ko maiatzaren 9a izan zen. Egun horretan, gutxien espero genuela, kartzelari mordo bat agertu zen euren giltza handi haiek hartu eta kriski-kraska zarataka. Zortzi preso berri zekartzaten, apaiz, jesuita eta fraide, Bilboko polizia etxean egunak eta egunak igaro ondoren.*

*Azitaingo (Eibar) parrokoa, Jon Etxabe, iritsi zen handienak hartuta. Dena beltz-beltz, ez ezagutzeko moduan. Burua, lepoa, betondoak; begietako kanikak eta niniak; besoak, eskuak, azazkalak, bizkarra, bularra, sabela, barrabilak, ipurmasailak, izterrak, belaunak, bernak, orpoak, oinak ... Den-dena zen ubeldura, zauria, haragi bizia... Eskuturretako eskuburdinak barru-barruraino estututa, hezurretaraino sartuak ...*

*Eta, antzera, Paskual Intxausti, pasiotar bizkaitarra; eta Segurako Patxi Auzmendi, jesuita; Bakioko apaiz Joxemari Madariaga... xehatuak.*

*Gotzainari deitu genion, Jacinto Argaiari. Etorri zen, bere begiez ikusi zuen koadroa eta zeharo izututa eta hunkituta alde egin zuen. Handik denbora batera, honela idatzi zuen gutun pastoralean: "Baldin eta egia balitz torturatu egiten dela, arbuiatu egin beharko litzateke pertsona hala tratatzea; baina egia ez balitz, agintarien aurkako irain astuna izango litzateke".*

Liburuaren lekukotzen bitartez, behin eta berriro errepikatuko den kontua da: pertsona zehatzak ziren ekintzarik gordinenak –eraso fisiko zein psikologikoak alegia- aurrera eramandakoak. Baina, horren alboan, horren aurretik, eta horren ondoren, zenbat erakunde, boteredun ere erantzule!

4. AZKENEKO HAUSNARKETA. Estatu frankistaren ezaugarrietako bat zen, hain zuzen, teoriak kristau eta katoliko sutsua izatearena. Halako estatu eta gizarte kristauan holako tortura basatiak apaizei egin bazizkioten, zer ez zioten, bada, egingo beste edozeini?

Tortura egon zen; sistematikoa; modu estrukturalean estalia eta ukatua. Lekukotza horiek berreskuratzeak lagundu beharko liguke arazoaren tamainaz jabetzeko; konpondu gabe utzi zen arazoaren segidaz jabetzeko; arazoaren inplikazio instituzionalez ere jabetzeko. Ez gorrotz bete gaitzen; ez borroka politikoa elika dezagun, baizik eta indar dezagun justizia, giza eskubideen defentsa, gizabanakoaren duintasunaren balioa. Etorkizuneko oinarri garbia izan dezagun, irmo denok aurrera egiteko!

Gainera, ETAk behin betiko jardun armatua utzi duela aldarrikatu ondoren eta Euskal Herrian bakegintzan aurrera goazela, gai honi heldu beharko zaio. Ez da posible izango egin den kalte itzela guztiz konponzea. Justizia administrazioak egin ez duen lana ezin da orain guztiz ordeztu. Baina justiziak galdatzen du arazoa aitortzeko. Kalte erreparazio sinbolikoa zor zaigu! Zor diegu torturatuei! Nork eta estatuak aitortu behar du hor egindako giza eskubideen urraketa argia. Hori bideratzeko mekanismo estrajudizial bat sortu beharko litzateke, kasu zehatzen gainean ebaluazio independente bat aurrera eramateko. Zientzia mediko-forentsea lagun (Istanbul protokoloan oinarria harturik), egingarria izango litzateke eta beste herrialdeetan bada horren eskarmentua (Txileko Valech izeneko txostena kasu). Horrela, torturatuei aukera emango litzaieke egia ateratzeko eta era horretan kaltea hein batean konpontzen hasteko. Horrek askatzen lagunduko luke oraindik ere mina ematen digun lokarri hau. Lekukotzok biltzen dituen liburu honek horren bidean ekarpena egin du jada.

**2016ko otsailaren 4a**